

BASO-SUTEAK SAIHESTEKO ZORTZI GOMENDIO

Baso-sute gehienak gizakiak eragindakoak izaten dira, eta gomendio erraz batzuei jarraituz saihestu daitezke.



Baso-suteen % 95 gizakiak eragindakoak dira, gehienetan arduragabekeriagatik.

Hona hemen gomendio erraz batzuk hondamendi horiek ekiditeko, edo behintzat ondorioak arintzeko.

1.Sutea eragin dezaketen hondakinik ez uztea.

Natura-guneetan beti jarraitu behar zaie aholku jakin batzuei, ekologikoagoak izateko eta, are gehiago, baso-suteak saihesteko.

Kristalezko botilak edo objektuak (lupa-efektua egiten dute), paperak edo bestelako materialugarriak uzteak ondorio lazgarriak izan ditzake.

Bereziki arriskutsua da basoan edo inguruetan erretzea: ez da zigarro-punta edo pospolorik bota behar, ezta autoaren leihotik errepidera ere, haizeak beste nonbaitera eraman eta aktibatu egin dezake eta. Onena da ez erretzea, baina ezin bada, ontzi bat erabili behar da errautsak botatzeko, eta zigarro-punta ondo itzali eta gorde.

2.Sute-garaian surik ez piztea.

Ekainaren 1etik azaroaren 1era da sute-arrisku handieneko garaia; batez ere eguerdian eta iluntzean, eta uztail eta abuztuko asteburuetan. Edozein txinparta txikik hondamendia ekar dezake. Hori dela eta, ez da surik edo barbakoarik egin behar, ezta uztondorik edo nekazaritza eta basozaintzako bestelako hondakinik erre ere.

Baso-suteen % 95 gizakiak eragindakoak dira, gehienetan arduragabekeriagatik.

3.Arrisku-eremuetan kontu handiz ibiltzea.

Ez da gomendatzen leku horietako etxebizitzetan erraz erretzen diren espezieetako hesiak jartzea (Arizonako nekosta, altzifreak, etab.).

Horrez gain, mugetan barbakoarik ez eraikitzea gomendatzen da, edo, gutxienez, ez erabiltzea egun haizetsu eta arriskutsuetan. Barbakoako hondakinak horretarako gaitutako edukiontzi edo zabortegietan utzi behar dira. Jabeek autodefentsa-plan bat onetsi behar lukete (ur-andelak eta -harguneak jartzea kaleetan, inguruko bideetan ibilgailu eta landararik ez edukitzea, etab.).

Naturaz gozatzen joaten direnak ondo ezagutu behar dituzte ingurunea eta bideak; ez dute seinaleztatutako lekuetatik atera behar eta ikusgaitasun oneko eremuetan ibiltzen saiatu behar dute.

4. Autoaren edo gailu mekanikoen erabilera saihestea.

Autoak edo errekontza bidezko ibilgailu guztiak horretarako dauden aparkalekuetan utzi behar dira, edo bestela, larre edo sastrakarik gabeko eremuetan.

Ihes-hodia sastraka lehorrekin kontaktuan egonez gero, sua sor daiteke.

Ez da txinpartak edo bero handia sorraraz dezakeen sasi-garbitzeko makinarik, motozerrarik edo beste aparatu mekanikorik erabili behar.

5. Basoen kudeaketa inbertitzea.

Basoen kudeaketa egoki baten bidezko prebentzioak baso-sute handiak saihestuko lituzke. Alabaina, Espainiako baso-masen % 13k bakarrik dute kudeaketa egokia.

6. Ingurumen-kontzientziaketa areagotzea.

Baso-suteen % 95 gizakiak eragindakoak dira, gehienetan arduragabekeriagatik.

Baso-sute baten arriskuez eta ondorioez kontzientziaketa izan daiteke horiekin amaitzeko modurik onena.

Garrantzitsua da, halaber, jarrera aktiboa hartzea: suteak saihesteko gomendioak gertukoekin partekatzea, mendian ikusitako isurien berri ematea agintari publikoei eta suteak sorraraz ditzaketen hondakinak kentzea, utzitako suak ondo itzaltzea, etab.

7. Legea aplikatzea eta kontrolak areagotzea.

Ingurumen-araudia zorrotz aplikatu behar litzakete baso-suteak eragiten dituztenen kontra. Halaber, giza

baliabide eta bitarteko tekniko gehiago behar dira delitu horiek ekiditeko edo, gutxienez, zigortzeko, baita suteak ahalik eta kalte gutxiena sorraraziz itzaltzeko ere.

8.Sute baten aurrean zer egin jakitea.

Sute edo ke-zutabe bat ikusiz gero, larrialdietarako 112 zenbakira deitu behar da berehala, eta ahalik eta datu gehiena eman.

Sutearen kalterik ez jasateko, ahalik eta bizkorrena alde egin behar da, haizearen norabidearen kontra edo albo batetik. Inoiz ere ez da joan behar mendi-hegalean gora edo sakan edo mendi-zuloetarantz. Autoan joanez gero, leihoak itxi egin behar dira.

Suteak itzaltzeko lanetan lagundu nahi bada, adituek eta langile baimenduek esandakoari jarraitu behar zaio, eta inoiz ere ez da bakarrik gelditu behar.

Eta sua egitekotan...

Sute-garaitik kanpo, baimena eskatu behar da baso-hondakinak erretzeko, eta behar diren neurri guztiak hartu behar dira.

Su edo barbakoa bat egin nahi duten kanpinlariak horretarako baimendutako lekuetan bakarrik egin dezakete (inoiz ez zuhaitzen azpian), eta ondo prestatu, kontrolpean egon daitezten. Kanpaldietako suetan, zulo bat egin behar da, sua pixka bat lurrean sartuta gera dadin; gainera, harriak jarri behar dira inguruan, hostoak eta adarrak kendu behar dira, leku haizetsuetatik urrunduta egin behar dira eta urez betetako ontziak eduki behar dira eskura.

Suak itzaltzeko, ur asko bota behar da erdian eta inguruan, eta errautsak mugitu, itzalita dagoela egiaztatzeko.